

Biografia- Jon Arretxe


[Wikipedia](#)

Jon Arretxe Perez ([Basauri](#), [Bizkaia](#), [1963ko ekainaren 4a](#)) [euskal idazlea](#) da. Bere herrian egin zituen lehen ikasketak, eta unibertsitatean matrikulatu zen [Deustuko](#) Filologia Fakultatean. Lizentzia lortu zuen, bai eta doktore gradua ere, *Basauriko euskara* tesiari esker, non Basauriko azken belaunaldi euskaldun zaharraren hizkera idatzia batu baitzuen. Gero, Gorputz Hezkuntzako ikasketak ere egin zituen, eta unibertsitatean irakasle ibili zen. Gogoko du kirola egitea eta bidaiatzea.

[Arbizun](#) bizi da, Nafarroa Garaiko [Sakana](#) haranean, Gasteiztik, Iruñetik eta Donostiatik erdibidean.

jonarretxe.net

- **Datu pertsonalak:** Jatorriz bizkaitarra izan arren (Basauri, 1963), Gasteizen bizi izan naiz 15 urtetan, eta 2004tik hona Nafarroan bizi naiz, Arbizon.
- **Ikasketa nagusiak, kronologikoki:** Pianoko karrera (Bilboko kontserbatorioan), Euskal Filologiako doktoradutza (Deustuko Unibertsitatean), Heziketa Fisikoko lizentziatura (Gasteizko IVEF-SHEEn) eta Kantuko karrera (Gasteizko eta Bilboko kontserbatorioetan). Ingelesa eta frantsesa ere ikasi ditut, goiko mailetaraino, Gasteizko Hizkuntza-Eskolan.
- **Ogibideak:** Hamar urte eman nituen euskarako irakasle Deustuko Unibertsitateko Euskal Irakaslegoan, eta hiru urte Heziketa Fisikoko irakasle EHUKo Irakasle-Eskolan, Gasteizen. 1998tik nire ogibideak honako hauek dira: idaztea, nire liburu nahiz bidaiei buruzko hitzaldiak ematea eta opera kantatzea, batzuetan Bilboko eta Iruñeko Opera Koruetan eta batzuetan bakarlari gisa.



- **Argitarapenak:** Zenbait itzulpen eta moldaketaz gain, neuk sortutako hogeitaka liburu daude argitaratuta, euskaraz. Horietariko asko gaztelerara itzulita daude, eta bat frantsesera (Rama et le trésor de la Grande Muraille de Chine). Azken urteotan nire liburuak euskaraz eta erdaraz argitaratzen dira aldi berean.
- **Kontaktua:** jonarretxe@yahoo.com

EUSKO IKASKUNTZA

Jon Arretxek berak aitortu legez, 1998tik hona, idaztea, bere liburu nahiz bidaiei buruzko hitzaldiak ematea eta, osagarri gisa, Bilboko Opera Koruan kantatzea izan ditu ogibide. Benetako ospea eta izena, baina, bidaia-literatura generoko kontakizunek eta unibertsitateko ikasleen bizitzan oinarritutako trilogiak eman diote. Halatan ere, Arretxe zenbait sariren irabazlea da: *Idatz eta Mintz* (Labayru), "Harpa liluragarria" ipuinarekin, *Igartza*, *Tubabubidaia* kronikagatik, eta *7 kale* (Bilboko azoka), bi aldiz, *Zazpi kolore* bidaia-liburuarekin eta *Fatum* nobela beltzarekin. Gainera, *Basauriko euskara*, (Basauriko udala, 1994) dialektologia-ikerketakaleratu zuen.

"Ni ez naiz ibiltzen gauzak esateko modu berezi, zail eta arraroen bila. Uste dut inportanteena esan nahi duzun hori erraz komunikatzea dela... Hortaz hizkera ulergarria, samurra nahi bada, irteten zait, eta gainera ez daukat asmorik korapilatzeko"

Ostegunak....Dena dela, gazte eta nerabeen artean arrakasta izugarria eta jarraipen fidela izan duen generoari hasiera eman diola onartu behar zaio idazleari eta haren idazlanari. Argitaratu zenez gero hogeitaz edizio plazaratu eta 30.000 ale saldu izanak "euskal best-sellerren" paradigma bihurtu du Arretxeren lana.



LABURPENA ATALKA

1. ATALA: Mozoilo Baltza(Supaldiak 2 eurotan)-Professeur Toure(Afrikar igarle ospetsua, bizkorra, eraginkorra eta bermekoa)(Burkina Fasokoa)Loles (tabernako nagusia, Kristina gaztearen izeko)SA KENE:Afrikako narrasti txiki bat(neska politei esaten zaie)Mahamoud dut izena *KARRAJU: pasilloa, baserrietan kortatik sukaldera zihoana.*

1.1.- 31.orr.San Frantzizkoko kamera finkoak kontrolatzen dituen gizonak gorputza fokatu du une batez, ez da batere mugitu, baliteke hilda egotea.32.orr. Eta kamerek jasotako irudiak monitorean aztertzen ari den gizonak ere ez du deus egin, zigarro bat piztu eta zupada luzea opinaiseman dio.

2. ATALA: OSMAN(aldikako soldataz gain Oinarrizko Errenta zeukanez, sarri laguntzen zigun...)JACINTO TXABARRI(ijitoen nagusia drogazalea . Familia osoa drogari kateatuta bukatu zuten)ERRUMANIAR IRRIBARRETSUA kleenexak saltzen//TXARO(zita proposatzen dio)HOGEITA HAMATAKA urte(nire senarra MARIATXIA zelatatu)(proba bat operarako)

56.orr: Orain yonkien portaera aztertzen ari da monitoreen kontrolatzailea...58. orr: Kamerak kontrolatzen dituen gizonak zigarro bat piztu du, eta lehenengo zupalditik ateratako kea guztiz desegin arte itxaron du gertatutakoaren abisua emateko.

3. ATALA: Lolesek Domingo Apraiz "Txomin" ezagutzen du, baita Txaro ere.Autoan sartzen du Kristik emandako kutxa bat//

4. ATALA: Zelatatzen duen taberna ondoko liburutegiko nagusia: Enare/ Nigeriarraren deia/matrikula hartzen dute badaezpada-auto haundia-Juliet ahizpa eraman dute-16 urte-/ bere alaba SIRA gogora/Txema liburu-banatzaile potoloa/ Dendako nagusia Martxel-Txomin hotelen jabea-Antxon epaile boteretsua-idazle autoritario astun horietakoa(Jon Arretxe bera izan daiteke?)(91.orr.)/106. orr. Kamio-zakarren artean neska beltz erdi bilutsi baten gorpua.


5.ATALA: Bereber tabernako bilera, azken hilketak zirela eta//SFAE elkarte biolentoa/kamerak jartzean baretu egin ziren/Nigeriarraren zorra 40.000€. Alfredo apaizak gorpua identifikatuko du/ matrikula pasatzen dio Txarori

6. ATALA: Txaro amorante-babesle/Matrikula CARS etxekoa da/Kristinaren laguntza/ Puta nigeriarrei eskuturrekoa erakutsi baieztatzeko/ mozorrodunek Toure astintzen dute
149.orr.- NESKATO HAREN(JULIETTE) ADINEKO BESTE NESKA AFRIKAR BAT ETORRI ZITZ Aidan GOGORA, EZINBESTEAN, ETA HOTZIKARA SENTITU NUEN, ASPALDITIK EZ NEUKAN ALABAREN BERRI ETA BULKADA SUMATU NUEN HAINBATGARREN ALDIZ PROBATZEKO TELEFONOA HARTZEN OTE ZIDAN.

7. ATALA: (152-176)

ESAMOLDEA: TALAIAN NENGOEN, EZ BAINEUKAN IDEIARIK ERE NONDIK IRTEN BEHAR ZUEN GIZONAK,

CARSen autoa alokatu zuena : [Mikel Goikoetxea Uriarte](#) , ertzaion ohia-bizkartzaina



19 KAMERA/JON ARRETXE



OSTENDU: ezkutatu, gorde, estaldu , kukutu

172.orr: Kamerak aztertzen dituen gizona (trama, kamara fokatzen duena. Erabakiak hartzen dituen, ezkutuan, Gran Hermano

8.ATALA: (175-190)

XUXU operako zuzendariaren gustuak: tenoreak, marikoiak, kasurikpez
gizon beltzak kontsulta eskatzen dio/Ada non dago?Egun bat daukazu asmatzeko/

9.ATALA: (191-212)

*197.orr: OSTERA ERE BURUTAZIO EZKORREN PUTZUAN JAUSTEA SAIHESTEAREN
NEURE BURUA JARLEKUTIK ZUTITZEN BEHARTU NUEN.*

10.ATALA: (213-220)

CIE batean, Madrilen atxilo

Ferrocarril clandestino laguntzaileak

Adarekin topo : baina ni alde egin nuenean baino azkoz txarrago itzuliko naiz, ahizpa txikirik gabe, eta sekulako zorrarekin.

11. ATALA: (221-238)

Kristina agertzen da CIESen bere senargaiaren bila

*230.orr: ..Den-dena daukaten aberaskume horiek ez dakite zer egin euren bizimoduei
emozio apur bat emateko eta ni jostailu exotiko bat banintz bezala erabili naute.*


231.orr: Asko ordaintzen da gizonetako haziaren truke? ...hazia erritualetarako (Afrikan)

*238.orr: San Frantziskoko hemeretzi kamera finkoen monitoreak kontrolatzen dituen
gizonak erasotzaileak nekatu eta sakabanatzen hasi diren arte itxaron du. Gero
biktimaren(gizon beltz-txuriduna) gorputz geldia fokatu du....zaindariak zigarro bat piztu eta
zupaldi luzea eman dio.*

Supalditik , 2.orraldean, zupaldira pasa da.


GAI-ORDENA:

1. Aurkezpena: Bere proposamena eta esperientzia
2. Jon Arretxeren biografia laburra
3. Paragrafoak irakurri eta komentatu zergatia
4. ZEHAZKI:
 - pertsonaia sinesgarria al da?
 - Eleberri beltzat hartu dezakegu? [Ezaugarriak: la novela negra](#)
 - “Gure” jendea hain abegikorra al da?
 - Zein da afrikan horien izaera, hain ondo ezagutzen duena Jonek? Toure positiboa eta praktikoa al da?
 - Pertsonaiak ez al ditu bereganatzen rol gehiegi?



19 KAMERA/JON ARRETXE

- Umore klaberik bai?



HURRENGO SOLASALDIRAKO PROPOSAMENAK, IRIZPIDEAK:

- Idazlearen generoa kontuan hartzea
- Literatur generoa kontuan hartzea: historia, fikzioa, saiakera,...
- Idazle-liburu zerrenda bat partekatu sinopsiarekin eta aste baten bueltan bozkatu. Bozkatuena izango da.
- Hurrengo epea jarri kontuan hartuta oporrak hor daudela (urtarrilak 26?-aurrekoa San Sebastian bezpera dela eta...)